




BALIO PROPOSAMENA

Gure enpresak, ezintasun fisikoa nahiz mentala duten pertsoneri jarduera fisikoa egiten lagutzen die. Gimnasio batean emango dugu gure zerbitzua eta baita laguntasuna ere, aholkularitza saioak emanez.

Horrela, kirola egiten laguntzeaz gain, harreman estuagoak lortzen lagunduko diegu gure bezeroei gainerako bezeroekin, beraien osasun mentala ere hobetzeko asmoz.



Kirola egiterako orduan, bezeroei zerbitzu pertsonalizatua eskaintzen diegu, bakoitzaren aurrerapausoak edo hobekuntzak kontutan izango ditugu, beraz, bezeroen behar bakoitzetara egokitzen gara. Aste osoan zehar egongo da enpresa irekia bezeroen beharrak asetzeko eta beraien ezintasunak trebetasun bihurtzeko.

Beste ikasleekin zein laguntzaileekin harreman sendo eta estuak lortzen lagunduko diegu eta azkenik, haien eguneroko arazoez hitz-, barre- eta negar- egingo dugu, aholkularitza saioak baititugu.





Online zerbitzua ere eskaintzen dugunez, klase guztiak grabatu egingo dira eta bazkideen plataformara igoko dira egunen batean faltatzen badira eta beste momentu batean praktikatu nahi badute aukera bertan izan dezaten.

Aholkularitza saioak ere, presentzialki nahiz online eskainiko dira ezarritako ordutegian aurkeztu ezin izango balute.



Garapen jasangarriko helburuei dagokienez, gure enpresak eskaintzen duen zerbitzua osasuna eta ongizatea helburuekin erlazionaturik dago, eta baita desberdintasunak murriztearen helburuarekin ere.

Batetik, ezintasuna duten pertsonen kirola egiten laguntzen diegu. Modu horretan, osasun fisikoa garatzea lortuko dute. Gainera, aholkularitza saioetan kezkak, beldurrak, zalantzak eta erronak gainditzen laguntzen diegunez, osasun mentala ere hobetzea lortuko dute. Horrela, bezeroen ongizatea bermatuko genuke.

Bestetik, gure enpresaren helburuetako bat inklusioa bilatzea da. Horretarako, ezintasuna duten pertsonen eta ezintasunik ez duten pertsonen arteko berdintasuna bilatzen dugu.



Taula honen bidez, enpresaren ahuleziak zein indarrak azaltzen ditugu eta baita jarraituko dugun estrategia ere.

AMIA	+	-
KANPOKOAK	<u>AUKERAK:</u> <ul style="list-style-type: none">• Euskal gobernuak emango dizkigu laguntzak• Patrozinadoreak	<u>MEHATXUAK:</u> <ul style="list-style-type: none">• Gure zerbitzu bera ez du eskaintzen, baina konpetetzia dugu, antzeko aktibitateak burutzen dituelako:<ul style="list-style-type: none">○ “Bizikletan adinik ez” enpresa
BARNEKOAK	<u>INDARRAK:</u> <ul style="list-style-type: none">• Zerbitzu pertsonalizatua• Berritzaileak	<u>AHULEZIAK:</u> <ul style="list-style-type: none">• Esperientzia gutxi

Gure enpresaren estrategia beste enpresa batekin aliantzak sortzea izango da. Izan ere, gure enpresari bisibildadea emateko, ekitaldiren bat prestatuko dugu inklusioa bilatze aldera. Horregatik, ekitaldiak prestatzen dituen gure inguruko enpresarekin aliantza sortuko dugu.

Bestalde, publizitateari ere garrantzi handia emango diogu. Izan ere, gure enpresak fama edo izena hartuz gero, bezero gehiagok etorri nahi izango lukete gure zerbitzua jasotzera, eta ondorioz, ekonomikoki ere emaitza hobekak lortuko genituzke.

G-MEL S.KOOP.

Ezintasunak, trebetasun



Bukatzeko, mehatxuak izan ditzazkegun kanpoko enpresei buruzko informazioa lortuko dugu, esaterako, “Bizikletan adinik ez” enpresari buruzko informazioa. Horrela, gure enpresan hobekuntzak eman ahal izateko ideiak lortuko genituzke eta gure konpententzia baino hobeia izatera iritsi gintezkeen.